

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Madril

A

urrera egin ahal izateko, artistek –berezi antzerki eta zinema mundukoek– botere politikoaren meneko izan beharra zeukatela salatu zuen, eta, hala jokatu ezean, kanpora bidea hartzera behartuak zeudela ezinbestean. Kultura sailari egotzi zion “Herri honetako sortzaile ez ofizialak abandonatu izana, eta kausaren zerbitzurako kultura sortu nahi hartan, harekin bat egiten ez zutenak eraitsi beharreko etsai jo izana”.

Honela mintzo zena gaur egungo lehendakaria izan zen (*El País*, 08-V-25), *Nazionalismoak sortzaileen erbesteratzea dakarre-la salatu du Lopezek* izeneko elkarriketan, eta hitz eman zuen berarekin ez zela halakorik gertatuko. Adierazpen haiek –non kokatua zauden, non kokarazi nahi zaituzten– mingarriak gerta zitezkeen, baina siglak aldatzea besterik ez dago berdin funtziona dezaten, eta oso estrapolagarriak dira, esate batera, Madrile-ra, PPren diskurtsora, baldin eta nazionalisten orde zozialistak aipatzen badira.

Antzeko zerbait sumarazten digute, halaber, Miren Azkarate kultur sailburu ohiaren hitzek, salatu berri baitu oraingo Jaurlaritzaren kultur politika Madrileko ikuspegitik bideratua dagoela (batean nahiz bestean, irudipena dut politikariek –ez aurrekoek ez oraingoek, ez hangoez ez hemengoek, ez legalek ez ilegalizatuak– ez dutela jabetu nahi sortzaileoi haiekiko eta haien proiektuekiko sentiarazi izan diguten desatxikimenduaz).

Bai: ez gara horren desberdinak. “Behe Paleolitotik postmodernitate-ra jauzi bakar batez lekualdatu nahi izan duen Herria” definizioaren aurrean, gure egoera konplexuarekiko konplexuz, lehen-lehenik Euskal Herria datorkiguke gogora, baina hitz horiek darabiltzana Julio Llamazares idazle espainiarra dugu (*Entre*



DANI BLANCO

perro y lobo). Bai: konplexu asko dago hemen eta uste baino konplexu gehiago dago Madrilen. Baina gureari dagokionean, esan beharra daukat gu ere konplexuetatik konformatu izan garela Madriletik etorritako apur bakanekin –hau da, funtsean, sari nazionalekin–, eta han markatutako kuota hutsalekin etsi dugula, eta, aspalditxoan hainbatek kritikatu duen bezala, han bilatu dugula hemengoaren bermea (gogoan dut, hala ere, izan dela salbuespenik, batik bat haur eta gazte literaturan, non, bolada batez, exotikokerien gainetik, zenbait liburu Estatuko lau hizkuntzatan normaltasunez argitaratu baitziren).

Nik uste konplexutik esan izan dugula “Ezagutzen ez gaituzten arren, periferiaren abantailak baliatzen ditugu eta askeago izan gaitzke sortzeko orduan”. Argudio eta zuribide zaharkitua –gutxienez– deritzot, baina errealitatea, *provincianotzat* jo izan duten idazle leondarrak zioen bezala, gordina da: postmodernitatearen birusak joak bizi gara, esnobismo hutsalaren agindupean, eta, batera nahiz bestera, apenas geratzen –garatzen esan ote zuen?– den interes kulturalik. Ez Euskal Herriarekiko ez ezerekiko. Ikusi al duzue *Informe Semanal*en noizbait Durangoko Azokari buruzko erreportajerik?; sakon-sakonean, baita kultur gileen artean ere, ez al zegoen –eta dago– aurreiritzi eta gaitzespen asko?

Ah, baina hau guztia Madril-Irun bidea egiten ari den Alvia azkarreko bagoi batean idazten ari naiz. Eta gogoan, eduki, Hendaia-tik Parisera ino jarraitzeko daukat, edo, agian, harago. Eta nago ibilbide kultural horretan Etxepare Euskal Institutua tresna ezinbestekoa izango dela, baldin eta konplexurik gabe jarduten badu. Aurrera egin ahal izateko. ■

Konplexu asko dago hemen eta uste baino konplexu gehiago dago Madrilen. Baina gureari dagokionean, esan beharra daukat gu ere konplexuetatik konformatu izan garela Madriletik etorritako apur bakanekin, eta han markatutako kuota hutsalekin etsi dugula, eta, aspalditxoan hainbatek kritikatu duen bezala, han bilatu dugula hemengoaren bermea



irudia:
Antton Olariaga